

Kantujira eta 400 istorio, iraila kulturaz blai Urnietan

Irailaren 17rako iragarri da kantujira, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete omentzeko baliatuko dena. Irailaren 24an, berriz, 400 istorio izeneko ikuskizuna datorkigu, antzerkia, musika eta dantza uztartuz.

Antton Jauregi eta **Juxto Egaña** aspalditxotik dabilta buru-belarri bi ekimen horien antolaketan eta aipatu ekimenen inguruko arrazoiak eta xehetasunak eman dizkiote Aiurri aldizkariari. Ziurtasunez adierazi dute Urnietaren nortasuna eta euskal kultura sustatzeko ekimen politak izan daitezkeela biak ere.

Bi ekitaldi sendo besoetan dituzuela zatozte oporretatik bueltan...

Antton Jauregi: Aspalditik datozen ideiak dira biak ere. Dena den, Urnietan ohituta gaude irailaren inguruko estresarekin bizitzera; Sanmielak asko marikatzen dute Urnietan, eta aurreko aste eta hilabeteetan lan egin behar izan dugu. Hain zuzen, kantujira irailaren ha-



Antton Jauregi eta Juxto Egaña Urnietako kultur eragile nekazainak.

sieran egiteak badu bere zergatia: eskolaz kanpoko ekintzak (kirolak, musika...) hasi aurretik egitea ikusi genuen egoki. Gainera, aurtengo ikasturtean Egape ikastolaren 50. urteurrena ospatzen da, eta ekitaldi sorta antolatu da; kantujira lehen pausotzat har daitekeelarik.

Zer dela eta animatu zarete kantujira antolatzera?

Juxto Egaña: Iraganean ere egin izan ditugu saiakerak,

kantu bazkariekin edo kantu afariekin. Egia esanda, arrakasta handiegirik gabeko ekitaldiak izan ziren. Ez dakigu zergatik zehazki, baina izan liteke Urnietako herriak ez duelako kale esturik, ez delako berotasunik eskaintzen jendea bildu eta kantuan aritzeko. Nolanahi ere, inoiz ez zaigu ezkatatu kantujirak antolatzeko barruko arra, eta oraintxe ikusi dugu une aproposa, ikastolak mende erdia bete duela eta.

Parte hartzailea izatea nahi duzue...

A.J.: Kantua kalean egitera bultzatu nahi genuke jendea; horixe da, eta ez besterik, gure asmoa. Printzipioz, kantujiran ikasleak izango dira ardatz, beraiek ondo entsaiatuta baitaude kantutegia. Hala ere, gurasoen partaidetza ere ziurtatuta daukagu. Horiez gain, euskal kantak eta kantatzea gogoko duten Urnietako edonor animatu nahi genuke etor dadin.

[6. ORRIALDEAN JARRAITZEN DUJ]

Urnietako Gaztelekua irekitzear irailan

Udako itxialdiaren ostean, Urnietako Gaztelekua atek irekiko ditu berriro Urnietako nerabe guztiengaz datorren astean. Irailaren 13an, asteartearekin emango diote hasiera 2016-2017 ikasturteari.

Orain izaten da bazkide egiteko unea eta, beraz, Urnietako gazteek aukera izango dute Gaztelekura bertaratu eta bertan izena emateko.

EGUN OSOKO OSPAKIZUNA

Bazkide berrien izen-emateaz gain, irailaren 12an, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei harrera egingo diote, egun osoko ospakizunarekin.

Urtean zehar, orain arte bezala, Garazi eta Unai hezitzaileak egongo dira gazteentzako jarduerak prestatzen. Lehenengo hilabeterako programazio berezia eskainiko dela iragarri dute. Betiko ordutegia mantentuko dute:

- Asteleheneetik ostegunera: 17:00 - 19:30
- Ostiraletan: 17:00 - 20:00

400 istorio
"musika, dantza... zuzenean"

Irailak 24, larunbata. 20:00
Urnietako kiroldegia

Sarrerak salgai Saroben. Maximo Iurramendi, 2. Urnieta

Leptontzailer: Kolaboratzaile:
En Baita Inoiz: Lurrik Harko (Pikto) Iratxe Iratxe

Antolatzaileak:



LEHENDAKARIA AUKERATZEKO KANPAINAREN HASIERA

Elkarrekin Podemos

Hauteskunde Orokorretarako egin diren bi deialdietan, Podemos alderdiak Andoainen eta Urnietan erakarri ditu botu-emaile gehien.

2016az geroztik Andoainen zirkulua osatuta dago eta Tere Santana da alderdiaren ordezkaria. Ilusioz beterik dago irailaren 25eko Lehendakaritzarako hauteskunderen atarian.

Oso urte gutxiko ibilbidea du Podemos alderdiak, espainiar estatuan indar bizia hartu duena. Eta denbora gutxian botu-emaile asko erakarri du. Oso urrutira joan gabe, Andoainen lehen indarra izan da Espainiako presidentea aukeratzeko bi deialdietan. Alderdi berria da, eta Andoaingo Podemos zirkulua berriagoa oraindik. Aurten jarri baita martxan, urtarrilaren 30ean Urigainen egin zuten aurkezpen ekitaldiarekin. Orduko hartan Teresa Santanak egin zituen Andoaingo Podemos alderdiko taldearen aurkezpen lanak eta, bereziki, politika mailan zegoen ustelkeriari aurre egiteko eta behar larriak dituztenei laguntzeko alderdian sartzea erabaki zuela aitortu zuen. Andoainen gazteek alderdia martxan jartzeko zain egon zela ere esan zuen, baina hori gertatu ezean berak pertsonalki aurrera egiteko asmoa agertu zuen.

Eta nor da Teresa Santana? Lasartearra sortzez, baina hogeita hamar urtetik gora darama Andoainen bizitzen. Euskal Herriko Unibertsitateko langilea da, zehazki, eskolazaina. Oso gogoko du herrian barrena pasieran ibiltzea. Berezi Espigoia, Leitzaran eta Oria ibaiek bat egiten duten toki horretan. Udalgintzan ari ez denez, horixe da Podemoseko bozeramailearen aurkezpen txartela Aiurriko irakurleentzat.

Andoaingo Podemos zirkulu bat al da? Zein egoeratan zaudete?

Zirkulu bat da, bai. Alor guztietan bezala, jendea ez da oso parte hartzailea eta kosta egiten da herritarrek gerturaztea. Herrikide askok markatuta sentitze horri beldur diola uste dut. Zirkuluak bilera irekiak dira, baina badirudi behin agertzeagatik dagoeneko Podemosekoa zarela. Gabezia hori daukagu guk, eta nago beste alderdiek ere gabezia bertsua dutela. Ari gara, halere, jendea pilatzen eta etorkizunean mugimendu gehiago izatea espero dut.

Martxan dagoen taldea da, beraz, zuena.

Hilean behin egiten dugu bilera. Gaudenak lanean ari gara, eta beste ekimen batzuetan ere bagabiltza. Dinamika areagotzea ez da erraza. 2015eko Udal hauteskundeetara ez aurkeztea erabaki genuen. Hainbat kide maila pertsonalean lanean ari ginen, baina zirkulurik ez zegoen. Ez zen bideragarri aurkeztea, ez geunden korrika eta presaka hauteszerrenda egiteko moduan. Abenduko Hauteskunde Orokorretan, ordea, Andoi-



Tere Santana, Podemos Andoain Ahal Duguko Kidea.

“Gaurko egunez Podemos alderdiarentzat Andoaingo udaletxean lan egiteko zubi modukoa Ganemos Andoain da”

nen lehen alderdia izan ginen. Eta inguruko herrietako alderdikideek Andoainen zirkulua martxan jartzeko gonbitea egin zidaten. Urtarriletik hona martxan dagoen zirkulua da Andoaingoa.

Ganemos Andoain al da zuen ordezkari modukoa udaletxean?

Ez. Eta hori garbi geratzea nahiko nuke. Ganemos Andoain sortzeko ez zituzten Podemosen abalak erabili, eta azken unean aurkeztea erabaki zuten. Nire ustean oportunistak samarrak izan

“Egungo egoera katramilatsu honetara ekarri gaituztenekin neka-neka eginda gauden pertsonak gara”

ziren, eurei adierazi didan bezalaxe. Eurak, ordea, gurekin identifikatzen dira eta berriki gure eskutik lan egitea erabaki dute. Olga Hernandez Ganemosko zinegotzia guregana hurbildu zen, parte hartzeko gogoia adieraziz. Eta, egia esan, lan handia eta zintzoa egiten ari da Andoainen. Gaurko egunez Andoaingo udaletxean lan egiteko Ganemos Andoain zubi modukoa da.

Baina argi gera dadila, nik ordezkartzen dudana Podemos Andoain Ahal Dugu alderdia da.

Eta dagoeneko datozen Udal hauteskunderen pentsatzen ari al zarete?

Oso urruti daude 2019ko Udal hauteskundeak. Olga Hernandezen bitartez udalerrria nola hobetu pentsatu beharko genukeela iruditzen zait. Agenda sozialari buruz lotura asko ikusten ditugu EH Bildurekin edota Irabazirekin. EAJ-PNVk eskuinera jo dezake batzuetan, PSEko joera batzuk ez ditugu ontzat hartzen... Udalerrri mailan, ordea, ez dago estatu mailan alderdien artean dagoen erradikaltasun hori. Andoainen, alor batzuetan alderdi guztiak bat egin da gaude.

Aurreikuspen handiegiak al ditu Podemos alderdiak Euskadin?

Zera esango dizut, abiapuntua guretzat zero da. Eta hortik gora, ongi etorria izan dadila. Hori da gure abiapuntua, iritsi berriak garelako. Azken emaitzak guretzat oso onak izan dira, eta uste dut emaitza ona lor genezakeela. Ni neu izazera, gainera, oso baikorra naiz.

Ekitaldirik egingo al duzue Andoainen?

Seguru baietz. Nagua Alba idazkari orokorra oso inplikaturik ikusten dut gure herriarekin. Haren agendan lehen-tasuneko da Andoain. “Kongresua plazan” kanpainarako berak deitu zidan, Andoainen ekitaldia egiteko.

Zuengan zer aurki dezake botu-emaileak?

Ilusio berri bat politika zaharraren aurrean. Egungo egoera katramilatsu honetara ekarri gaituztenekin neka-neka eginda gauden pertsonak gara. Uste dut, gainera, Pili Zabala lider ezin hobe dela.

EAJ-PNV botuetan gaintzea izango da zuen erronka nagusia, beraz?

Ea nola erantzuten dizudan, inor haserretu ez dadin. Euskadi EAJren kortijoa da. Askorentzat egonkortasuna da jeltzaleen alde egitea baina azkenean eskuineko alderdia da.

Enpresaren alde egiten du, eta hori ona da. Baina langileen alde zer egiten du?

Beste alor batzuri begira, ahoa betetzen zaigu Euskadin beste lekuetan baino hobeto gaudela esatearekin, baina ez da horrela. Osakidetzan, adibidez, itxaron zerrendak oso luzeak dira. Ezkurtuan zerbitzu asko pribatizatzen ari dira.

Asko, –baina asko–, hobetu daitezke Euskadiko biztanleen bizitza maila.



LEHENDAKARIA AUKERATZEKO KANPAINAREN HASIERA

EH Bildu

Jon Zulueta EH Bilduko bozeramaileak agintaldiko lehen urtean lortutako adostasunei garrantzia eman nahi dio: “Andoainen zein lehentasunen inguruan lan egin behar dugun adostu dugu, eta aur-

ten horiek aurrera eramaten ari gara”. Udalerritik haratago, herritarren eskubide politiko eta sozialen alde EH Bilduk apustu zuzena egiten duela defendatzen du.

Andoaindik zer nola ikusten dira irailaren 25eko hauteskundeak? Gertuko ala urruneko?

Gertuko, oso gertuko. Gasteizko Legebiltzarrak muga handiak ditu, dugun subirautea faltaren ondorioz, besteak beste. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, Legebiltzarra ganbera legegilea dela, eta bertan eztabaidatzen eta erabakitzen diren legeak eragin zuzena dute andoaindarron egunerokotasunean. Esate baterako, amaitu den agintaldi honetan onartu diren lege garrantzitsuenak (Etxebizitza legea eta Tokiko erakundearen legea 'Udal legea') bertan eztabaidatu eta onartu dira.

Legebiltzarrean dagoen indarren korrelazioa oso garrantzitsua da, Jaurlaritzaren zereginaren norabidea eta ikuspegia zein den markatuko duelako.

EH Bilduren emaitzak, Orokorretan edota EAE mailakoetan, eragin al dezake Andoaingo EH Bilduren jardunbidean?

Ez du zertan eragin beharrik. Egun, hauteskunde ziklo bakoitza independentea da. Herritarrek ezberdin bozkatzeko dute hauteskunde batzuetan edo besteetan. Andoaingo EH Bilduk sustrai sendoak ditu. Bi Udal hauteskunde jarraian irabazi ditugu eta gure bi zereginetan lanean dihardugu; gobernu jardunean batetik eta, bestetik, herritarrekin batera herri dinamika ezberdinetan murgilduta. Gobernatzen egoteak alderdi interesak baztertu eta herri ikuspegiak aritzea esan nahi du. Hori izango da gure zeregina 2019 bitarte eta, beraz, iraileko hauteskundearen emaitzak ez gaitu bide horretatik aterako.

Zer nolako kanpaina egingo duzue herrian bertan? Zerbait aurreraterik bai?

Kalean egongo gara. Kanpainak berez proposamen politikoak aurkezteko izaten dira, azkenaldian espektakulu bilakatu baldin badituzte ere. Saiatuko gara, gure proposamen politikoa zein den argi azaltzen. Dagoeneko irailaren 6an herri bilera irekia deitu dugu, Urigainen.

Gure mezua gizarteratzeko ditugun bitarteko zuzenenak erabiliko ditugu; kalera atera eta herritarrari zuzenean helaraziz.

Zein ideia nagusi defendatuko dituzue?

Azken asteotan defendatu ditugunak garatuko ditugu. Hauteskunde hauetan lehendakaritza nork duen baino zerbait gehiago dago jokoan.



Jon Zulueta, EH Bilduko bozeramailea Andoainen.

“Gure mezua gizarteratzeko ditugun bitarteko zuzenenak erabiliko ditugu; kalera atera eta herritarrari zuzenean helaraziz”

Azken agintaldia antzua izan da herri ikuspegitik. Urkulluk agintaldian zehar herritarrei kontsulta egingo ziela agindu zuen eta urrats txikiena ere ez du egin. Zortzi urte daramatzagu horrela, ekinbide politikorik gabe. Arazoa ez da herritarrei kontsulta antolatu ez diela, arazo nagusia da PNVk kompetentzien kudeaketatik haratago, ez duela eskaintza politiko zehazturik eta eztabaida hori modu zabalean irekitzeko beldur dela.

EH Bilduk eztabaida hori modu gordinean ireki nahi du. Herritarren esku-

“Elkarrekin Podemos alderdiak euskal herritarrei zein alternatiba eskaintzen dizkion zehaztu beharko du”

bide politiko eta sozialak, hizkuntza eskubideak eta abar, bermatzeko zein antolaketa politikoa nahi eta behar dugu? Beste modu batera esanda, herritar guztiak hobeto bizi daitezten, zer nolako antolaketa nahi dugu?

Orokorretan Podemos Andoainen bozkatuena izateak kezka sortzen al du zuen alderdian?

Kezkarik ez. Kezka baino gehiago harri-dura esango nuke. Herrian egitura sortzen ari den alderdiak, kaleko kanpaina

gutxiarekin emaitza oso onak lortu ditu, ez soilik lehen indarra izan direlako, baita bozen kopuruan ere. Argi dago Podemos fenomeno mediatiko oso indartsua dela, eta Espainian dagoen aldaketarako behar horretan, PP gobernutik botatzeko dagoen gogoarekin konektatu dutela. Hauteskunde hauek ezberdinak izango dira. Elkarrekin Podemosek Euskal Herritarrei zein alternatiba eskaintzen dizkion zehaztu beharko du. Hemendik aurrera ikusiko dugu fenomeno mediatikotik aparte, sozialki zein nolako errotzea eman duen gure herrian.

Udalgintzan erabaki potoloenak abertzaleen artean gertatu dira. Zer nolako sintonia dago EH Bildu eta EAJ alderdien artean?

EH Bildu eta EAJ-PNVren arteko harremana herrian ona da, azken urteotako onena. Ezberdintasun handiak ditugu gure artean, bai ideologikoak eta baita kudeaketa ereduari dagokionez. Hala ere, Andoainen zein lehentasunen inguruan lan egin behar dugun adostu dugu eta aurten horiek aurrera eramaten ari gara. Gure aldetik bada, eta beraien aldetik jasotakoari erreparatu, datozen hilabeteetan akordio berriak lortzeko aukera handiak daudela esan dezakegu.

Udalgintzaren martxa ikusita Andoainen, PSE-EE al da gaur gaurkoz zuengandik urrutien dagoen alderdia?

Egia da talka eta eztabaidak izan ditugula. Baina harremana ez da txarra. Komunikazio kanalak baditugu eta ziur gaude herriko arazoei irtenbidea emateko adostasunak lortzeko aukerak badaudela. Adierazpen eta mozio askotan elkarrekin bozkatu izan dugu, beraz ikus daiteke Andoaingo arazoei aurre egiteko orduan, adostasuna lortzeko baldintzak ditugula.

Hauteskundeak bitarte alderdiak lehian izaten dira. Tartean ika-mikak sortzen dira, eta gaur arerio direnak bihar gobernatzeko kide izan daitezke. Zein litzateke EH Bilduren aukera onena?

Politikoki zuzena izango naiz; arazoa ez da norekin, zertarako baizik; gure aldetik herritar guztien eskubide politiko eta sozial guztiak bermatuta egon daitezten eta Euskal Herriaren erabakitze eskubidean urratsak emateko prest daudenekin elkarlanean arituko gara. Aurretik eta Legebiltzarrak izango duen osaketa eta sor daitezkeen gehiengoak zeintzuk diren jakin gabe ezer aurreratzeko zaila da. Orain, proposamenak egiteko momentua da.



LEHENDAKARIA AUKERATZEKO KANPAINAREN HASIERA

PSE-EE

Maidier Lainez Andoaingo sozialisten buruzagia da, eta EAEko hauteskundeetan Gipuzkoako zerrendakideen artean aurkitzen da.

Udal politikagintzaz eta Euskadi mailako lehiaz egindako galderei erantzun die. Euskadi eta Andoain mailan sozialistek eraginkor izaten jarraitu nahi dute.

Zenbaterainoko garrantzia dute EAE mailako hauteskundeak, herri baten lidergozaren eskutik? Gertutik jarraituko al dituzue?

EAEko hauteskundeek garrantzi handia daukate gure egunerokotasunean. Izan ere, Osasuna, Hezkuntza edo Etxebizitzako kompetentziak ez dira udaletxe-koak, EAEkoak baizik.

Orain dela gutxi, adibidez, Eusko Jaurlaritzara jo behar izan genuen Ondarreta ikastetxeko gurasoek aurkeztu zizkiguten arazo batzuei aurre egiteko. Edo 2015an, Eusko Legebiltzarra izan zen Etxebizitzako Legea onartu zuena (PSE-EEK aurkeztu eta EH Bilduko eta UPyDko babesarekin aurrera eraman genuen; EAJk eta PPK kontra bozkatu zuten).

Esan bezala, oso hurbil ditugun gaiak dira orain jokoan daudenak.

Euskadi osoan EAJ eta PSE alderdien artean dagoen adostasuna ez da Andoainera iritsi. Zuen ikuspegitik zer dela eta gertatzen da hori? Zer egin lezake PSE-EEK egoera hori aldatzeko? Eta EAJk?

Urtebete pasa da eta oraindik andoaindar asko (EAJri bozkatu ziotenak ere) galdera bera egitera gerturatzen zaizkigu. Oraindik ere, ez dakigu zer erantzun. Bizitzan kontraesan handiak daukela esan genezake, eta politikan, zer esanik ez!

Alvaro Gonzalez zinegotziak ez du kargua utzi, baina bai zuen alderdia. Nola bizi duzue egoera hori?

Alde-bateko erabakia izan da, baina errespetatzen dugu. Gure aldetik, ezer gutxi gehiago esan dezakegu.

Galera horrek zuei eta jeltzaleei gehien- go osoa ziurtatzen duen 9. botoa kendu dizue, esaterako, erraustegiaren gaian...

2015eko maiatzaren 24an, andoaindarrak PSE-EEko alderdiak 5 kide izan zituzala bozkatu zuten, ez lau. Hori da, guretzat galera garrantzitsuena.

Gehien-oso lortzea ez da gehien kezkatzen gaituena; hori, gaiaren arabera etorriko da. Daramagun urteari erreparatuz gero, konturatuko gara oso gai puntualak izan direla, EAJ eta EH Bildu elkarren artean ados jarri ez direnak. Batzuetan, gobernatzen nor ari den ere jarri da zalantzan. Sozialistok argi daukagu oposizioa lana egin behar dugula. Gobernu taldearen alternatiba izatea ardua horrek dakar eta horretan gabilitza: adibidez, erraustegiaren gaian edo lurpe-



Maidier Lainez, Andoaingo PSE-EEko buruzagia.

“Batera egonez gero, Euskadiko hiritar guztien etorkizuna eta berdintasuna bermatuko ditugu”

ko edukiontzia kentzearen gaian. Azken honetan, bakarrik egon arren.

Lehendakaritzarako, zer nolako kanpainan egingo duzue irailean herrian bertan? Zerbait aurreraterik bai?

Kalean jendearekin egongo gara batez ere, beste kanpainetan egiten dugun bezala. Kanpainan zehar, Susana Corcuera (gure hautagaia) eta beste hautagaiak Andoainera etorriko dira, andoaindarraren zuzeneko kezka ezagutzeko eta haiekin biltzeko.

“Sozialistok Euskadi irekia aldarrikatzen dugu, hangoak eta hemengoak batzen dituen, eleantza eta modernoa”

Aurrera ditzakedan ekintzak hauek dira: kanpainako astearteetan eta larunbatetan, Merkatu plazan egongo gara eta irailaren 15ean (osteguna), arratsaldean, Goikoplazan egongo gara.

Zein ideia nagusi defendatuko duzue?

Batera egonez gero, Euskadiko hiritar guztien etorkizuna eta berdintasuna bermatuko ditugula. Hori dela eta, gure leloa “Juntos Batera” da.

Sozialistok Euskadiko hiritarrei Aurrerapen Ituna proposatu nahi diegu,

non, daukagun krisiari batera aurre egin diezaiogun, bidean inor utzi gabe. Nazionalistek aurkezten duten Euskadi itxia eta identitarioaren aurrean, Sozialistok Euskadi irekia aldarrikatzen dugu, hangoak eta hemengoak batzen dituen, eleantza eta modernoa.

Orokorretan Podemos Andoainen bozkatuena izateak kezka sortzen al du zuen alderdian?

Ekaineko orokorretan Podemos Andoainen alderdi bozkatuena izan zela argi dago, baina agian espero zuten baino boto gutxiagoekin. Izan ere, hauteskunde orokorretara, Andoainen, Podemos alderdiekin batera IU-Irabazi eta Gane-mos alderdiak aurkeztu ziren, bi alderdi hauen botoak Podemos alderdiaren emaitzan islatuta ez agertu arren.

Bestalde, gure emaitzak onak ez zirela izan aitortu behar dugu. Hala ere, egia da hauteskundeetako egunean, kazetari guztiek gure alderdiak emaitza askoz okerragoak izango zituela etengabe esaten zutela, eta azkenean ez zela horrelakorik gertatu. Jakinuraz, Podemos alderdiak, Espainia mailan, bakarrik Gipuzkoan, Bizkaian, Araban, Bartzelonan eta Tarragonan irabazi zuen. Datu bitxiak ere aztertuko.

Baina ekaineko hauteskunde orokorrek beste datu bitxi bat ere ekarri zuten: Andoainen, Sozialistok EH Bildu baino boto gehiago lortu genituen (2011tik, edozein hauteskundeetako emaitzak begiratzuz gero, lehenengo aldia izan da). Guretzat, dudarik gabe, sorpresa bat. “Batean kale, bestean bale”, esaten den bezala.

Hauteskundeak bitarte alderdiak lehian izaten dira. Tartean ika-mikak sortzen dira, eta gaur arerio direnak bihar gobernatzeko kide izan daitezke. Zein litzateke PSE-EEren aukera onena?

Kanpainan, alderdi bakoitza bere jarraitzaileekin diren nabarmentzen saiatzen da. Eta hortik, alderdien arteko desberdintasunak agerikoagoak izan daitezela, nahiz eta askotan ezberdintasun horiek gehiegi ez izan.

Gaur egun zein izango den gobernatzeko kidea iragartzea ezinezkoa gertatzen zaigu, hauteskundeetako zenbakiak zehaztuko dute soilik: batuketa batzuek eman dezaketelako eta beste batzuk ez.

Itxaron egin beharko dugu. Iruditzen bazaizu, berriro hitz egin genezake irailaren 26an. Ados?



LEHENDAKARIA AUKERATZEKO KANPAINAREN HASIERA

EAJ-PNV

Marijose Izagirre Andoaingo EAJ-PNVko zerrendaburuak jarrera irekia dutela defendatzen du, "EAJk ez du inolako beto edo aurreiritzirik ezartzen, jakin behar da adostasunak zertarako egiten di-

ren, programa eta helburu zehatzak garatzeko". Lehendakaritzan jarraituz gero, suspertze ekonomikoa lehentasuna izango dela iragarri du.

Andoaindik zer nola ikusten dira irailaren 25eko hauteskundeak? Gertuko ala urruneko?

Hauteskunde hauek oso gertukoak dira guretzat. Alderdi batzuek Espainia dute helburu eta euren jardun politikoa Madrilerara begira kudeatzen dute, sukurtsal soilak dira hemen dituzten egiturak. EAJrentzat lehentasun bakarra dago, Euskadi. Honenbestez, guretzat garrantzi berezia dute iraileko hauteskunde hauek, herri honen etorkizuna jokoan baitago.

EAEn 2015eko ekainean adostasuna izan zen EAJ eta PSE artean. Andoainen, ordea, erabaki handienak abertzaleen adostasunetik etorri dira...

Beti izan dugu akordio eta adostasunerako jarrera irekia, batzuekin zein besteekin akordioetara iristeko gaitasuna. EAJk ez du inolako beto edo aurreiritzirik ezartzen, jakin behar da adostasunak zertarako egiten diren, programa eta helburu zehatzak garatzeko. Argi dago alor nazionalen EH Bilduren elkar ulertzea ezinbestekoa dugula, aldi-gizarte ereduari dagokionean beste alderdiekin puntu amankomunak topa genitzake. Alderdietatik haratago, konpondu beharreko tokian tokiko arazoak existitzen dira.

Politika herritarren zerbitzura lan egiteko da, horretarako momentu bakoitzean erabaki egokiak hartzen asmatu behar da, beharrezko babesak topatzen.

Orain gutxi arte PSEk eta EAJk gehiengo osoa ziurtatzen duten 9 botoak zituzten Andoainen. Sozialistek galdu duten zinegotzi horrek kezka berezia sortu al du zuegan?

Ez, inolaz ere ez. Erabat errespetatzen ditugu edozein talde politiko edo zinegotziren erabakiak. Guri ez dagokigu alderdi sozialistaren barne arazoak epaitzea. Andoainen aldeko gehiengo zabalak lortzea gustatuko litzaiguke, politika modu eraikitzailean egitea, kritika "baldarra" ekidin eta ekarpenak egitea, populismo errazean eta demagogian erori gabe.

Gobernu taldean EH Bildu bakarrik dago, beraz, erabaki potoloetarako babes politikoak behar ditu. Zer da eurengan ontzat ematen duzuen? Eta hobetzeko luketena?

EAJak Andoainetik duen konpromisoa hitzetatik ekintzetara igaroz adiera-



Marijose Izagirre, EAJ-PNVko bozeramailea Andoainen.

"Suspertze ekonomikoa lehentasun gisa ezarri dugu: enpleguaren sorrera, industriaren aldeko apustua, ikerketa, berrikuntza..."

zi du, 2016ko udal aurrekontuen onarpenarekin eta herriarentzako inbertsio garrantzitsuenak elkarrekin finkatuz. Erakutsi dugu posible dela oposiziotik ere herriak aurrera egin dezan lan egitea, andoaindarrentzako kalitatezko zerbitzuak bermatuz. EH Bilduk jakin izan du egoeraren irakurketa pragmatikoagoa egiten. Gauza asko dugu hobetzeko, baina konfiantza berreskuratzea da erronka garrantzitsua. Herri honetan, urte luzetan zehar zubi ugari apurtu dira, zauri ugari ireki, eta ezin-

"PP eta Ciudadanos alderdiak kenduta, gainerako alderdi guztiekin adostasunera iristeko gaitasuna daukagu"

bestekoa da egoera horri buelta emateko gogoeta sinesgarria egitea, eta jarraera eraikitzailea berreskuratzea.

Lehendakaritzarako, zer nolako kanpainan egingo duzue irailean herrian bertan? Zerbait aurreraterik bai?

Gustatuko litzaidake andoaindar guztiengana iristea, jokoan dagoena azpimarratzeko. Kanean ibiltzea tokatuko zaigu, ahoz aho gure proiektua zabalduz, twitterren txiokatuz ala ekitaldietan ozen adieraziz.

Zein ideia nagusi defendatuko dituzue?

Orain 4 urte, ekonomikoki oparoa ez zen testuinguru zail bat jaso zuen Urkullu lehendakariak, baina egoera horri buelta ematen saiatu gara egunero. EAJren helburua edozein herritarrek bere bizitza proiektua duintasunez eta askatasunez aurrera eramateko aukera izatea da.

Horretarako, suspertze ekonomikoa lehentasun gisa ezarri dugu: enpleguaren sorrera, industriaren aldeko apustua, nazioartekotzea, ikerketa, berrikuntza... Ezinbestekoa baita aberastasuna sortzea, ondoren modu orekatu eta justu batetan banatzeko. Pertsonak dira gure helburu, eta gizarte gisatik batera aurrera egiteko oinarriak ezarri ditugu, inor inoiz bazterrean gera ez dadin.

Pausoz pauso, gutxika gutxika, dezimaz dezima, baina Euskadi etenik gabe aurrera doa. Ezinbestekoa da herritarren babesa bilatzea, ibilbide honetan bultzada emateko, elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko.

Orokorretan Podemos Andoainen bozkatuena izateak kezka sortzen al du zuen alderdian?

Podemos alderdi bat gehiago bilakatu da, lehiakide. Ez dugu uste azken emaitzak errepikatuko dituenik. Irakurketa ugari egin daitezke, Madrillgo gobernua dute jomuga, eta euskal gizarteak Rajoy (PP) kalera botatzeko modurik eraginkorrena Podemos bozkatzeko zela ulertu zuen, ez nuke bestelako estrapolaziorik egingo, Nagua Albaren diskurtsoak Euskadin ez baitu balio.

Hauteskundeak bitarte alderdiak lehian izaten dira. Tarteetan ika-mikak sortzen dira, eta gaur arerio direnak bihar gobernatzeko kide izan daitezke. Zein litzateke EAJ-PNVren aukera onena?

Akordioak eta gehiengoak proiektuen inguruan artikulatu beharko dira. Elkartu bai, baina zertarako? Badira soilik EAJ gobernutik kentzea helburu duten alderdiak, proiekturik gabeak, soilik gobernura iristea nahi dutenak: "kendu zaitez zu, ni ipin nadin".

PP eta Ciudadanos alderdiak kenduta, gainerako alderdi guztiekin adostasunera iristeko gaitasuna daukagu. Azken 4 urteetan seriotasunez egindako kudeaketa izango dugu saltzeko, euskal eredu propioa herritarrekin zintzotasunez elkarbanatzeko eta berresteko.

ANTTON JAUREGI ETA JUXTO EGAÑA ERAGILEEI ELKARRIZKETA

Kantujira eta 400 istorio, bi ekimen herri-sustatzailerak

[1GO ORRIALDETIK DATOR]

J.E.: Bestalde, hariak mugitzen ari gara Euskal Herriko herrietan kantujira ibili ohi diren taldeak ere Urnietara hurbil daitezten. Beren erreperitorioetan Letek eta Iriondok badute tokia, oso estimatuak dituzte biak ere, eta pozez hartu dute gonbidapena.

Lourdes Iriondo eta Xabier Lete omentzeko asmoa daukazu...

A.J.: Ikastolaren sorreran ibili zen bikotea, plastika ematen, kanta herrikoiak erakusten..., erabat inplikatu ziren ikastolaren proiektuan. Ez ziren izan nolana hiko musikariak, Ez dok hamairu-ko kideak. Urnietarrontzat harro egoteko moduko luxua da herrikoideak izatea Euskal Herriarentzat enblematikoa izan zen mugimenduko bi pertsona. Hortaz, gogoan eduki nahi genituzke ekitaldi xume baten bidez, eta euskal kulturgintzari eta kantugintzari egin zieten ekarpena gogoratuko duen plaka ipiniz beren etxe aurrean.

Ekitaldian, Aire ahizpek Lourdes Iriondoren kantak interpretatuko dizkigute; haren kantak Leterenak baino ezezagunagoak egiten zaizkigu beharbada, eta horrexegatik egokia ikusi dugu bereziki azpimarratzea bere kantutegia.

J.E.: Urnietako Udalarekin hitz egin dugu guztiaz, eta oso eskuzabalik agertu zaigu. Urnietako herritarrek euskal kulturaren alde egindako ahalegina nabarmen zuten, eta aldi berean, euskal kantugintza herrikoia sustatzea da ekimenaren helburua, eta nola ez, babes guztia eskaini digu.

400 ISTORIO

Zer izango da 400 istorio izeneko emankizuna?

A.J.: Ikuskizun arina, dinamikoa eta dantzaz osatutako ordubeteko ikuskizuna izango da. Handikeriarik gabe, xumetasunez, Urnietako historia zabaldu eta urnietartasuna sustatzea nahi genuke. Hitz joko batetik dator bere izenburua;



Antton Jauregi, Fermin Zinkunegi, Eneko Salaberria, Xabier Ubillos, Juxto Egaña eta Helena Roguska, 400 istorio ikuskizunean parte hartuko duten zenbait musikari, entsegu baten ostean.

“Urnietarrontzat harro egoteko moduko luxua da herrikoideak izatea Euskal Herriarentzat enblematikoa izan zen mugimenduko bi pertsona”

adierazi nahi da Urnietak 400 urte bete dituela, eta horietan makina bat istorio sortu dela, urnietarrak protagonista dituztenak.

Eskema jakin batek josiko du guztia: Urnietan azken urtetan egin diren hiru antzezlanen (Marizulo, Urnieta 59 eta 1936) bideo zatiak emango dira pantaila batean, eta bakoitzaren ondoren musika zein dantza helduko da, herriko hainbat talderen eskutik: hala nola, Anabas taldea eta Txanbolin txistulari banda, Onbosko banda, Lourdes Iriondo musika eskolako trikitilariak, Egape dantza taldea eta jubilatuen etxeko dantzariak (pasodobleak).

J.E.: Musikaren arloan, antzezlanetan erabili ziren zenbait pieza, eta Antton berak aurreko urteetan sortua duen musika interpretatuko dira, besteak beste. Urnietako zenbait musika eta dantza bildu

ditugu oraingoan, baina sortu den elkarlanerako espirituak fruitu gehiago eman ditzan etorkizunean, horixe nahi genuke gogo biziz.

Ikuskizuna sei zatitan banatuko dela, esan duzue...

A.J.: Urnietaren historia bereziki markatu duten aro edo gertaldi ezberdinak errepasatuko dira, erretrospektiba moduan: XX. mende bukaera, inmigrazioa, 1936ko gerra zibila, autodromoa, gerra karlista, eta Urnieta hiribilduaren sorrera. Normalki, antzeko muntaiak antolatzen direnean, iraganetik gaur arterainoko bidaia proposatu ohi da, baina guk atzekoz aurrera egingo dugu. Gaurko eguneko Urnietarekin hasiko gara, eta orain 400 urteko garaiekin amaitu.

Zerk bultzatu zaituzte halako muntaia egitera?

J.E.: Luis Mari Zalduarekin batera lan taldea osatuz, bi ekimen uztartu ditugula esango genuke. Batetik, garai batean txistulariek San Migel jaien atarian egin ohi genuen preludea izeneko kontzertua, Euskal Herriko herrialdeak gogoan hartzen zituena. Eta bestetik, Urnieta

“Urnietaren historia bereziki markatu duten aro edo gertaldi ezberdinak errepasatuko dira”

hiribildu izendatu zuteneko 400. urteurrenaren inguruko ospakizunak. Iaz bete ziren 400 urteak, baina Udalaren asmoa proiektua irekia izatea izan zen, hurrengo urtean gai berarekin jarraitzeko gogoia agertu zuen, eta horrexegatik 400 istorio-ren emankizuna proposatu genion aurtengorako.

Konturatuta geunden Urnietaren historia modu askotara zabaldu litekeela (liburuak, antzerkia, bideoak...), herrian jada egingo zegoela izugarritzko lana kultur formatu ezberdinetan. Bada, zergatik ez hiru antzerkietako irudiak hartu oinarri gisa, eta musika eta dantza erantsi? Badakigu hiru antzezlanak fikzioa zirela, baina errealtatetik pasarte asko dauzkate berarekin, eta horiek hautatzen saiatu gara.

Zer esanez gonbidatuko zenituzkete urnietarrak?

A.J.: Aulkian eseri, eta ordube-

400 ISTORIO, DATUETAN:

- **Partehartzaileak** (120 bat pertsona denera): Anabas, Txanbolin txistulari banda, Onbosko banda, Lourdes Iriondo musika eskolako trikitilariak, Egape dantza taldea, eta jubilatuen etxeko dantzariak.
- **Hizkuntza:** euskara; gaztelaniazko lapurpenxoak tarteka.
- **Iraupena:** ordubete.
- **Non-Noiz:** kiroldegian, irailaren 24an, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.
- **Sarrerak:** Saroben salgai, 5 €.

KANTUJIRA:

IRAILAK 17, LARUNBATA

- 11:30** Irteera. Ibilbidea, Egape ikastolatik abiatuz, Idiazabal kalean zehar, San Juan plazaraino.
- 13:15** Lourdes Iriondo eta Xabier Leteri omenaldia, euren etxe aurrean plaka ipiniz.
- 13:30** Aire ahizpen musika emanaldia, Lourdes Iriondoren abestekin.
- 14:00** Herri bazkaria. Plazan bertan, edo ikastolako frontoian euria eginez gero. Helduak 16 €, haurrek 8€. Tel.: 943 009 275 /943 009 141 /696 340 702. Irailaren 13an azken eguna.
- 16:00** Aire ahizpen bigarren emanaldia.
- Info:** www.egape.org


tez, geure herriaren eta arbasoen historiara hurbiltzeko aukera bikaina eduki dezaketela. Euskal dantzak edo musika gogoko dituen edonork ikusteko moduko ikuskizun duina aurkeztuko zaio aurrean; ziurtatzen dugu ez dela aspertuko batere. Gainera, erdaldunei ere jakinarazi behar zaie nahiz eta euskara izan ikuskizunaren hizkuntza, gaztelaniaz laburpenxoak egingo direla zati bakoitzaren hasiera eta bukaeratan.

Bertan parte hartzen dugunok ez gara profesionalak, baina dakigunetik eta ahal dugunetik guztia jartzen ari gara; entsaioetan jendeak jartzen duen borondatea ikusi besterik ez dago.

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



Gabon, Txirrita



Antzerkia

BAKEA
PAZ



#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

donostia.kultura.com

Donostia, irailak 10

Urnieta, irailak 23

Bi emanaldietako
sarrerak agortuta

PARTAIDEAK

Aktoreak

Aitor Iriondo solaskidea
Alba Cabrera Kontxi
Andoni Mujika solaskidea
Ane Loinaz neskazaharra
Anjel Alkain pedantea
Eneko Salaberria solaskidea
Fermin Argiñarena Prantses-txikia
Gentzane Belaustegigoitia epailea
Haritz Zubillaga Txirrita
Imanol Ansa solaskidea
Isidro Salinas aita
Ixabel Salaberria neskazaharra
Izaskun Labat arrea
Jokin Izagirre defentsorea
Jon Iturbe solaskidea
Jonmar Sarasua langile txarra
Joxe Mari Agirre langile ona
Joxe Mari Berasategi fiskala
Joxe Mari Mujika Tellei-txiki
Joxeba Lizeaga Don Moraltzio
Juan Peñagarikano sagardotegikoa
Koldo Tapia Don Tiburtzio
Koro Berasategi alarguna
Luisa Serrano neskazaharra
Marilo Lasa ama
Maxux Etxeberria . Maritxu, tabernaria
Mikel Izagirre muslaria, Saiburu
Nahiko Arraiza solaskidea
Rosa Elosegi Aurriñazpiko atsua
Uxue Mayo alaba

Bertsolariak

Andoni Mujika
Eli Pagola

Musika

Antton Jauregi txistua
Fermin Zinkunegi eskusoinua
Helena Roguska biolina
Joxan Goikoetxea pianoa
Uxue Mayo panderoa
Xabier Ubillos gitarra

Dantzariak

(Egape Dantza Taldea)

Eider Manterola
Garazi Usabiaga
Intza Cabrera
Janire Juanikorena
Nahikari Sanchez
Uxue Manterola

Zuzendaritza

Miren Gojenola
Mikel Laskurain

Musika zuzendaritza

Joxan Goikoetxea

Argiztapen diseinua

Carlos Solano

Eszenografia

Peio Villalba
Josean Perez

Jantziak

Enkarni Cuesta

Makillajea eta ile-apainketa

Miren Eskisabel
Lucia Saiz (laguntzailea)

Kartelaren diseinua

Manu Muniategiandikoetxea

Argi eta soinu teknikariak

ABS

Ekoizpena

Jaione Jauregi
Maribel Tardío

Koldo Tapia zizurkildarra, Don Tiburtzio apaiza

1946KO AZAROAREN 20AN ZIZURKILGO KALE-ETXE, ERDI-BASERRI BATEAN SORTUA DA KOLDO TAPIA ARANBURU.

Zortzi anaia-arreben artean laugarrena. Herri mugimenduetan aritutakoa, kartzela eta klandestinitatea ezugutu zituen. Bartzelona izan zuen ihesleku eta bertan bizi izan zen hiru urteetan egindako lagunak oraindik mantentzen ditu. Sindikalgintzan hainbat urte igaro ondoren, euskal kulturaren munduan ibilbide luzea egindakoa da, Santurtziko euskara teknikari moduan hasita. Amonak kutsatu zion bertsoetarako zaletasuna, eta tarte labur batean oholztatik bertsoak kantatzera iritsi bazen ere, Bertsozaleen Elkarteko idazkari izan zen sorrera beretik. Azken urteetan Urnieta du bezileku, eta bertako beste 30 herritarrekin batera, datorren larunbatean Donostiako Trinitate plazan izango da “Gabon Txirrita” antzeztzen.

Nolakoa zen zure haurtzaroko Zizurkil?

K.T.: Nekazal herri erabat euskalduna, giro homogeneouskoa. 60 harmarkadan emigrazioaren lehen fenomeno gertatu zen. Bi familia, extremeñoak eta andaluzak, extremeñoak gerra garaian beren familiak gorriak ikusitakoak ziren eta oso ondo integratu ziren. Hark bronka botatzen zien herriko baserritarrei beragatik gaztelan hasten zirenean, gutxi ulertuagatik bazekien berari tokatzen zitzaiola ikastea. Haren seme-alaba guztiak euskaraz ikasi zuten. Besteak ez ziren integratu, eta haien seme-alabek ez zuten euskararik ikasi.

Eta nola gogoratzen duzu eskola garaia?

K.T.: Eskola kurioso zen, maixu-maistrak, neskak alde batetik, mutilak bestetik, 3 urtetik 14ra. Valladolideko maixu bat genuen, falangista amorratua. Igande eguerdian mozkortu egiten zen eta astelehen goizean hura aguantatuko zuen amaren semezik ez zegoen. Euskara gorrotatzen zuen. Egunero “*Cara al sol*” kantatu behar izaten genuen, garai gogorra. Ez genuen gaztelanirik ikasi. “Tu proceso de escolarización ha sido apto”.

Elizak indar handia zuen garai hartan...

K.T.: “Gabon Txirrita” obran antzeztzen dudana Don Tiburtzioren tankera handiko apaiza genuen. Ezagutu nuen Zizurkilan lau apaiz egon ziren garaia ere. Horietatik hiru, ataundarrak. Dotriña euskaraz ikasi genuen, gure euskararen salbazio bideetako bat dotriña izan zen. Txirritak esango lukeen moduan, “naiz eta batere jakin ez, fuerte egiten genuen latinez”. Apaizak telebista erosi zuen herrian telebistatik ez zegoen garaian. Sakristian jarri zuen eta igande arratsaldetan pezeta bana kobratzen zigun hura ikusteagatik. 9 urtetik 14 urte bitartean monagiloa izan nintzen, eta hamar urtetik hamalaura bitartean egunero-egunero nire amonarekin goizeko 06:30etako mezetara joaten nintzen. Apaizak kanpaiak 06:00etan jotzerako plazan egoten ginen, bidean errosarioa erreztatuta.

Nondik sortu zitzaizun bertsoetarako zaletasuna?

K.T.: Amonak zuen afizioa, aitak ere bai,



Koldo Tapia Aranburu zizurkildarra, Lourdes Iriondo parkean.

baina, memoria amonak. Eta harekin bertso mordoak ikasi genuen. Gazte denboran, igande ilunabarretan, erromeritik bueltan, bi ardo trago edanez gero egiten genuen herrian. Gogoan ditut igande goizetan mezetara joaten ziren baserritarrak. Baziren 8 edo 10en bat tabernan bazkaltzera geratzen zirenak, eta haien arratsaldeko saioa izaten zen bertsoan, sukaldean. Gustatu egiten zitzaidan haien saioak entzutea eta bertso ikasiak kantatzea, eta alkohol dosiaren arabera bat-batekoak ere kantatzea. Lopategi eta Azpillagaren garaia ere bete-betean bizitu genuen, euskal sena pizten hasi zitzaigun garaiarekin lotzen ditut bi bertsolari horiek. Haien non, gu han, batez ere igande arratsaldetan.

Beraz, bat-bateko bertsoak kantatzera ere iritsi zinen...

K.T.: 1980an, Xabier Amurizaren ikasle izan nintzen, Joxerra Bilbao, Joxerra Etxebarria, Trino Azkoitia, Jon Aurre, Xanti Jaka eta Iñaki Lasarekin batera. 1982an *Zu ere bertsolari* liburua kaleratu zuen Amurizak, baina aurretik bere bertso eskolaren eskemak nola funtziona zezakeen probatu zuen gurekin. Bilboko Santutxuko bertso eskolara ere joan nintzen ondoren. Eta jarraian zertxobait ibili ginen plazetan kantari, 1982ko Txapelketa Nagusira ere aurkeztu ginen, baina, ibilbidea laburra izan zen.

Bertsozale Elkarteko idazkari izan zinen sorreratik...

K.T.: 21urte egin nituen postu horretan. Elkartearen sorreratik 2007ko apirilaren erretiroa hartu nuen arte. Prentsaren eta administrazioan aurrean aurpegia eman ez beti. Kolpe guztiak jasoz.

Ezagunak izan ziren Elkarte eta Jaurritzaren arteko liskarrak. Noiz normalizatu zen egoera?

K.T.: 1996n, Gobernu aldatzarekin etorri zen pertsonen aldaketa. Joseba Arregiren lekua, Mari Karmen Garmendiak hartu zuenean. Hasierako bilerak gogorak izan baziren ere, Hitzetik Hortzera martxan jartzea lortu genuen, Txapelketa Nagusiko finala telebistaz eskaintzea, eskoletan bertsolaritza lantzen hastea Foru Aldundiarren plan ezberdinak bideratuz eta abar. Geroztik, harremanak normalak dira.

Bertsolaritzarako bezala, dantzarako afizioa ere baduzu...

K.T.: Amonak plantxa egiten zuen bitartean, dantza doinuak tarareatzen zintuen, eta gu, anaia-arrebok dantzan ibiltzen ginen hark markatutako erritmora, eta aulki batean eserita zegoen aita izaten zen gure maisua. Gerora aureskua ikasi nuen eta herri mailan hainbat ekitalditan dantzatu izan nuen.

Zein lotura izan duzu antzerkiarekin?

K.T.: Gogoan ditut Lukas Dorronsoro, Debako Goaz taldearekin herrira etortzen zeneko garaiak. Gero, nire bizitzan loturarik handiena antzerki programatzailer moduan egindako lana izan da. Halere, Basauriko *Tarima* antzerki taldearekin egin nituen bi ikastaro, bat, gorputz espresioari zegokiona eta bestea ahotsarena.

Txirrita zuretzat ezaguna izango zen, zalantzarik gabe...

K.T.: Txikitatik oso ezaguna egiten zait. Amak esaten zuen bere bizitzan hartutako sustorik handiena Txirritak emandakoa

“Oso erraz egokitu naiz, talde giroa bikaina da, herrian ere, ilusioa sortu du jendartean”

izan zela. Herriko tabernan jaietan neskame ari zela, Txirrita eta beste bertsolari bat herrira bertsoetara etorriak ziren, eta goiz batean ganbarara zerbaiten bila igo zenean, eup! eginez han altxatu omen zitzaion Txirrita. Aze sustoa hartu zuena gure amak! Txirritaren pasarteak eta bertsoak oso ezagunak ziren gure etxean. Xenpelar, Bilintx, edota auzoko genuen Pedro Mari Otañorenak bezala.

Bere bizitzako pasarteak aipatu dituzu, baina, zein izan da Txirritak bertsolaritza egindako ekarpena?

K.T.: Uste dut bertsolaritza ikuspegitik ekarpen izugarria egindakoa izan zela. Genio bat, eskolatu gabea izanagatik, gainera. Canovasen andreaki jarri zion bertsoarengatik entzun izan dut garai horretan literaturaren berrikuntzetan ematen zen urratsik inportanteenetakoa izan zela. Bertsolari laiko bat zen, bazuen noski, bere ikuspegi moralak; gaurko modernismoan erabiltzen den lenguaia erabiltzeko ere gai zen, ahozko espresabidearen maisu ikaragarrietako bat, zalantzarik gabe. Bertso bakar batean aditzera ematen duen informazioa guztia eta esan indar hori izugarriak dira. Zer nolako esan indarra ahapaldi bakoitzean. Pentsa bere intelijentzia noraino iristen zen, hil aurretik esan zuenean, “*nere aipamenak izango dira beste laurogei urtean*”.

Urnietartu berria izanik, nola sentitzen zara herriko antzezleekin “Gabon Txirrita”ren entsaioetan?

K.T.: Urnietara duela 4 urte etorri nintzen. Oraindik ere, gure komunikazioaren katedralak tabernak izaten jarraitzen dute, eta baneukan nahia, hango giro mugatutik irten eta mugimendu zabalago batean herritarrak ezagutu eta nire ekarpena egiteko. Oso erraz egokitu naiz, talde giroa bikaina da, herrian ere, ilusioa sortu du jendartean. Zuzendariek, Miren eta Mikelek, haseriatik oso garbi zuten nondik eraman nahi zuten obra, eta pazientziak eraiki dute pertsonaia bakoitza.

Larunbatean Trinitateko plazara hurbiltzen den ikusleak zer Txirrita ikusiko du?

K.T.: Sarkastikoa, umore elegantekoa, esan indarrekoa, baina oso zuhurra. Hizkuntzaren erabilerarekin gozatzen dugunoi, Txirritak eman digun ekarpen izugarri hori obra honetan agertzen da. Txirritaren izaera, alfer fama hori, bere inmoralitate eta anarkia puntu hori ikusiko dugu. Hori bai, Txirritaren izaera partzial bat, Txirrita asko baitira, eta hemen bat ikusiko dugu.

Joxan Goikoetxea, Leteren musikaria eta txoferra

JOXAN GOIKOETXEA MARITXALAR (HERNANI, 1967) MUSIKA MUNDUAN IBILBIDE LUZE ETA OPAROA EGINDAKOA DA.

Xabier Leteren taldean ibili zen haren bizitzako azken 15 urtean, eta Letek, azken liburuko poesia emanaldi musikatuetan ere bera izan zuen bidelagun. Xabierrek idatzitako Gabon Txirrita antzezlanaren testu orijinala berak dauka jasota, bera izan zen konturatu zena aurten betetzen zela Txirritaren heriotzaren 80. urteurrena, eta berak proposatu zion Donostia 2016 Kultur hiriburutzari obra hau berriro taularatzeara. Leteri eta antzezlanari buruz hitz egiteko Hernanin duen Aztarna estudioan elkartu gara.

Noiz hasi zen Lete eta bion arteko harremana?

Joxan Goikoetxea: Banuen Lete ezagutzeko gogo, beregan hurbiltzeko nahia. Aurrez, Pascal Gaigne, Ganbara, Anje Duhalde, Txomin Artola, Amaia Zubiria, Imanol eta abarrekin aritua nintzen, bere musikariak ere ondo ezagutzen nituen, bere kontzertuetara joaten nintzen. Garai hartan Xabierren kontzertuetan Jabier Muguruzak jotzen zuen esku-soinua. Behin, Hernaniko Potemkin zine klubak eskatuta *Metropolis* pelikula mutuari zuzeneko musika jarri nion. Emanaldian, publikoaren artean zen Xabier. Amaitutakoan, niregan hurbildu, eta nongoa nintzen galde-tu zidan; “Elorrabi baserrikoa” erantzun nion. “Ez haiz makala, Elorrabi baserrikoa, *Metropolis*-i musika jartzen!”. Izugarrizko grazia egiten zion, nonbait. Handik gutxira, Leteren kontzertu batera Muguruzak ez zuen joaterik izan, eta niri deitu zidan. Hortik aurrera bere musikari eta txoferra izan nintzen, ospitalera ere neronek eramaten nuen azken urteetan. Ostegunero joaten ginen, eta ondoren, elkarrekin bazkaltzen genuen. Bere gauza asko oso hurbiletik ezagutu nituen.

Miresmen punttu bat nabaritzen da zure hitzetan...

J.G.: Niri, eta ezagutu zuten gehiagori ere, Xabierrek bizitza markatu zigun betirako. Batetik, erakutsi zidana edo bere ondoan ikasi nuena, eta bestetik, pertsonalki laguntza handia jaso nuelako berarengandik. Horregatik, gaur egun leialtasunez jokatu beharra sentitzen dut. Egunero daukat aitzakiaren bat harekin pentsatu eta harekin hizketan aritzeko.

Xabierren ondarearen zati bat zure eskuetan dago...

J.G.: 2010ean, Xabier hil ondoren haren inguruko jendea, bereziki Joxe Angel Arbelaitz eta ni materiala errebisatu eta baloratzen hasi ginen, eta material hau neri jasotzea egokitu zitzaidan. Xabierrek ez zeukan esperantza eta konfiantza gehiegirik instituzioetan, bere testamentuan ez zuen ezer ere utzi instituzioentzako. Gaur egun horretaz asko ari da hitz egiten, eta bueltaka-buel-



Joxan Goikoetxea Hernaniko bere estudioan, Gabon Txirritaren eskuizkribua eskuetan duelarik.

taka, ondare horren zatirik garrantzitsuenak berak nahi ez zuen tokian bukatu du, Gipuzkoako Foru Aldundian. Eta kontuan izan behar dugu ez zela edozein, bera kultura diputatua izana zela. Hemen aipatu nahi nuke, baita ere, Bartolo Orkaizagirrek zer nolako maitasunarekin Urnietako Matxo taberna Xabier Leteren aldre bihurtu duen. Museo txiki bat da.

Orain arte zer erabilpen eman diozue material horri?

J.G.: Xabier Leteren eta edozeinen ondarea, gorde, bildu, babestu, ikertu, sailkatu, eta erabili egin behar da. Musikari dagokionez, bere abestiek osatutako 12 emanaldi egin ziren Euskal Herri osoan zehar, oso jendetsuak izan zirenak. Litaraturarekin ere martxan gaude, antologia poetiko bat argitaratzea da asmoa. Eta antzerkiari dagokionez Gabon Txirrita taularatu dugu. Hala ere, oraindik gauza asko dago egi-

teke, adibidez, oraindik ez daukagu Xabierren kantutegi bat. Era berean, egia da, baita ere, bera oso ezkorra zela, eta agian gauzak beste era batera utzi izan balitu erraztu egingo zuela ondoren egin beharreko lana.

Xabier Lete eta antzerkia. Zer esan genezake?

J.G.: Ezagutu nuen Xabierrek antzerkiarekiko zuen maitasuna. Gaztetan antzerkia eta zinea ikustea zuen gogoko. Tarragonako ikasketak bukatuta, bere lehenengo pausoa antzerkia idaztea izan zen, aurrena, Oiartzungo Intxixu taldearentzat; Donostiako Jarrai taldearentzat gero, eta hortik eman zuen pausoa “Ez dok hamairu”ko abestien testuak idaztera. Eta behin Urnietan, Lourdesekin batera jarraitu zuen antzerkigintzan.

Zer garrantzi eman beharko genioke Letek antzerkigintzan egindako ibilbideari?

J.G.: Agian, ez dira izango obra izugarriak, baina hor daude, eta gaur egun Euskal Herrian egiten den antzerkia ezin da ulertu garai haietako antzerki herrikoa ezagutu gabe. Eta arlo horretan Xabierrek egin zuen lana garrantzitsua da. Obra batzuk taularatu ziren, beste batzuk oraindik taularatu gabe daude. Datu bat, esan izan da *Jaun de Alzate* obra ez zela taularatu zentsuragatik, eta ez da egia, benetako arrazoia izan zen jende asko behar zela eta ez zuela taldea osatu.

Zuk proposatu zenion Donostia 2016 kultur hiriburutzari Gabon Txirrita beren programazioan txertatzea. Kontuan izanik kanpoan zenbat proposamen geratu ziren, nola konbentzitu zenituen?

J.G.: 2013. urtean konturatu nintzen aurten beteko zirela Txirritak bertso batean aipatutako laurogei urte famatu haiek. Eta urte hartan bertan proposatu nien aurten obra hau taularatzeara. Esan nien “Hemen duzue proiektu kolektibo bat, antzerki herrikoa erreperatu eta gogorarazten duena. Juizio fartsen garrantzian, juizio fartsa bat, gaur egungo fobia guztiak biltzen dituen pertsonaia, eta gainera, Xabier Letek idatzia, eta hori gutxi bada, Txirritak esan zuen, *laurogei urtean izango dira nire aipamenak*, eta 2016an betetzen dira 80 urte horiek”. Eta baiezkoa jaso nuen.

Larunbatean taularatu da antzezlan Donostiako Trinitate plazan, nola ikusten duzu obra?

J.G.: Miren eta Mikelek zuzendari moduan egindako lana goraiatzeko modukoa da, eta horrekin batera, Urnietako jendeari esker, ondo ari gara lanean eta larunbatean, imajina genezakeen eskaparaterik ederranean eskainiko dugu hilabete luzeetan ondutakoa. Larunbatean, Urnietan izango da protagonista Donostian eta niretzat luxu bat izango da beraiekin batera parte hartzea.

Azkenean obraren libretoa argitaratu al da?

J.G.: Bai. Horrela prozesu osoa borobilduko da. 2016ren finantziarioarekin neuk argitaratu dut. Duela 34 urteko emanaldiei ere erreferentzia egingo zaio bertan eta horrez gain, Ramon Etzezarretak muxutruk egindako itzulpena ere izango du.

Zer musika entzungo da Gabon Txirrita obran?

J.G.: 1982ko emanaldietan Ezeiza anaiek grabatutako musika erabili zuen Xabierrek, ez zen egon zuzeneko musikarik. Oraingoan bai. Trantsizio laburrak egingo ditugu, eta lotura horiez gain, obraren hasi-aurreko momentua girotuko dugu. Letek eta Valverde Txirritaren bertsoak grabatu zituztenean erabilitako doinuak erabiliko ditugu horretarako.



Xabier Lete eta Joxan Goikoetxea poema errezitaldi batean.

Urnietarrak Donostia konkistatzera



Taula gainean eta atzealdean arituko diren partaideak, Saroberen kanpoaldean ateratako taldeko argazkian.

Aiurri astekariak martxoan zekarren albista, "Xabier Letek idatzi eta 1982. urtean Buruntza antzerki taldeak taularatutako **Gabon Txirrita** obra berriro ikusteko aukera izango da Urnietan eta Donostian". Dagoeneko sei hilabete pasa dira eta irakurleak lerro hauek irakurtzen ditueneko estreinaldirako ordu gutxi geratuko dira. Urnietako Udalaren eta Donostia 2016 ekimenaren babesean, dena prest dagoela esan daiteke. Lan handia egiten aritu dira **Mikel Laskurain** eta **Miren Gojenola** antzezlanaren zuzendariak eta baita **Jaione Jauregi** eta **Maribel Tardiok** zuzendutako lantalde teknikoak ere. Ezinbestekoak izan dira, antzelan honetan, hainbat eta hainbat urnietar. Haien parte hartzerik gabe ezinezkoa litzateke. Eskarmentu handikoak dira "**Marizulo**", "**Urnietia 59**" eta "**1936**" obretan aritutakoak direlako. Ziur Trinitate plazako estreinaldian bat baino gehiago harrituta utziko dutela.

"Hasieratik argi genuen ikuskizuna Urnietako jendearekin aurrera eraman behar genuela".

Miren Gojenola, zuzendaria

"Egunerokotasuna erakusten duen komedia bat da, sagardotegi mundua eta abar. Txirritaren bizitzari erreparatu bat da, umoretik".

Mikel Laskurain, zuzendaria

"1982ko estreinaldian hiru egun jarraian eskaini genuen, orduko Elizondo aretoan. Hiru saioetarako sarreak agortu egin ziren eta ikusleek asko disfrutatu zuten. Ikusi zutenek, oroitzapen polita gordeko dute".

Jokin Izagirre, aktorea

"Ikusleek oso ondo pasako dute, une barregarri asko dagoelako eta aktoreek oso ondo antzeztuko dutelako".

Izaskun Labat, aktorea

"Letek Txirritaren papera niri emateko garaian ez zuen inongo zalantzarik izan".

Bartolo Orkaizagirre, 1982ko Txirrita

"Eroso sentitzen naiz paperean. Azkenean, Txirrita parrandero fama zuen bertsolaria izan zen, eta niri ere gus-tatzen zait, behar denean, parranda egitea, eta bertsok ere asko".

Haritz Zubillaga, 2016ko Txirrita

"Bagenekien Urnietan bazegoela jendea antzerkira bideratua. Eta Urnietan ezetz esaten badigute? Ez genuen hori kontenplatu, ezta hipotesi gisa ere".

Inesa Ariztimuño, Donostia 2016

"Euskal Herrian ehuneko ehuneko bizi nahi duenak bere kultur erreferentzian Shakespeare eta Cervantes bezala, Txirrita ere izan behar du".

Xabi Paya, Donostia 2016

"Aurrekoa barrutik bizitu ondoren, 34 urte geroago berriro taularatzea gauza ederra da. Osabak idatzitako obra bat izanik, gainera."

Joxemari Berasategi, aktorea

"Nerabeekin hasi eta jubilatuetaraino, adin guztietako pertsonak ari gara talde lanean. Bizikidetzaren adibide ederra dela iruditzen zait".

Gentzane Belaustegioitia, aktorea

"Horrelako lanak egitearen gauzarik onena hori da, denok borondatez ari garela. Balore handia ematen diet horrelako herri-lanei".

Marilo Lasa, aktorea

"Xabier Letek idatzia denez eta Txirritaren bizitzan oinarrituta dagoenez, biei omenalditxo egiteko modu ederra dela iruditzen zait".

Isidro Salinas, aktorea



Elkarriketak, hemerioteka, antzezlanaren garapena...

Eduki gehiago
www.aiurri.eus webgunean
komunitatea atalean
aiurri.eus/komunitatea/gabontxirrita



OSTEGUNETIK IGANDERA OSPAKIZUN UGARI SORABILLAN

Kalitate handiko kontzertua

Karme Muro sopranoaren eta Joxean Paskual organo-jolezalearen kontzertua iragarri da ostiralera, 20:00etatik aurrera. Bi musikari donostiarrek abesti

klasikoez eta euskal doinuez osatuko kontzertua eskainiko dute Sorabillako San Martin elizan. Doan izango da sarrera.

Muro ibilbide luzeko abeslaria da, ahots zoragarrikoa. Makina bat orkestrekin batera abestu izan du, Nafarroan, New Yorken, Frantzia eta Italian kantuan lizentziatura lortu zuenez geroztik. Hala nola, Musikeneko Orkestra Sinfonikoa, Baiona-Euskal Kostako Erregio Orkestra, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa edo eta Ensemble Orchestral Ermend Bonnal. Aditua da musika pedagogian, eta ahots-teknikako ikastaroak eman ohi ditu EHUn edo Deustuko unibertsitatean.

Joxean Paskual, berriz, orkestren zuzendaritzako, klabezineko, organoko eta armoniako goi ikasketak egindakoa da. Musikari aski ezaguna da Andoainen, 1998az geroztik Alberto Agirre abesbatzaren zuzendari gisa batez ere. Nolanahi ere, ez da geldirik egoteko musika munduan, eta organo-jotzaile gisa kontzertu ugari emateaz gain, hainbat orkestren zuzendari izandakoa da. Batzuk aipatzearen: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Baionako Orkestra Sinfoniko Gaztea, Gazteen Easo Abesbatza, Estokolmoko Erret Musika Eskola, Galizako Orkestra Sinfonikoa... Aldizka, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Asturiasko Orkestra Sinfonikoarekin kolaboratzen du, eta egun, Tolosako musika Kapelauro organo-jotzailea da, eta Errenteriako Andra Mari Abestatzako zuzendari ordea.



Karme Murok eta Joxean Paskualek abesti klasikoekin eta euskal doinuekin kontzertua eskainiko dute ostiralean.

HAUR ETA GAZTETXOENTZAKO EKITALDI MORDOA

Urtero bezala, haur eta gaztetxoek edukiko dute zer gozatua Sorabillako jaietan. Hainbat ekitaldi prestatu dira eurei begira.

Besteak beste, larunbatean egun osoan zehar puzgarriak eta jolas herrikoiak izango dituzte. Halaber, eguerdian kros txikian parte hartzeko aukera edukiko dute eta arratsaldean antzerkia izango dute *Patata Tropikalaren* eskutik. *Kondaira baten truke* antzezlana antzeztuko dute Sorabillako plazan.



Irailak 8, osteguna

- 11:15 Txupinazoa, suziriak eta kanpai errepika.
- 11:30 Meza Martin Deunaren elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren, auzokideentzako hamaiketako.
- 19:00 Pintxo-potea.
- 21:00 Auzo afari-merienda, baikoitzak berea eramanda.

Irailak 9, ostirala

- 10:00 Mendi irteera, auzoko inguruneak ezagutzuz.
- 18:30 Joxe Mari Iturzaeta memorialeko txapeladun errebantxa. Emakumeak: Ainarika Izarne, Olatz eta Rake len aurka. Gizonezkoak: Loidi-Iñaki, Alvarez-Arrutiren aurka.
- 20:00 Kontzertua, San Martin Deuna elizan.
- 21:00 Zikero afaria. Ondoren, Los Ruby musika taldearekin dantzaldia.

Irailak 10, larunbata


- 10:00 Herri krosa bikoteka. Binakako lasterketa ez lehiakorra. Bikote bakoitza minutu bateko tartearekin irtengo da. Belkoingo gurutzerainoko joan-etorria. Bikote bakoitziari denbora hartuko zaio, baina ez da sailkapena osatuko.
- 11:00 Haurren krosa eta jolas herrikoiak.
- 11:30-14:00 Puzgarriak frontoian.
- 17:00 Haur antzerkia, Patata Tropikala: "Kondaira baten truke".
- 17:00 Ate ireki jardunaldia, Erretore Etxean.
- 16:00-18:30 Puzgarriak.
- 19:00 Andoingo batukada feministaren emanaldia.
- 20:00 Sardin-jatea.
- 21:00 El Ritmo del Desvan musika taldearen emanaldia. 80ko hamarkadako pop-rock musika biziberritzera datoz.

Irailak 11, igandea

- 10:30 Auzoko eskopeteroak txarangaren laguntzaz auzoan barrena.
- 11:30 Meza Martin Deuna elizan.
- 12:15 Miguel Angel Perez Lasa futbol epaile ohiari eta auzokideari omenaldia.
- 17:30 Zeterrera saioa. Hegazti harrapakariekin erakustaldia.
- 19:00 Sagardo dastaketa kantujirako abeslarien laguntzaz.
- 22:00 Festa amaiera.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



SORABILLAKO JAIETAKO ARGAZKIAK ETA BIDEOAK
IKUSGAI AIURRI.EUS WEBGUNEAN

EUSKALTEGIETAN A1 ETA A2 TITULAZIOAK ERE ESKAINIKO DIRA IKASTURTE HONETAN

Euskalduntzea, erabilgarri

Traila, hurrengo hilabeteetarako aisialdi tartea antolatzen hasteko urte garai aproposa izaten da. Erronka berriei heltzeko unea egokia; esaterako, euskara ikasten hasi, segi, edo maila hobetzeko. Euskal-

duntzekoa alegia. Buruntzaldeko euskaltegiek, Hernaniko eta Lasarte-Oriako Udal Euskaltegiek eta Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte eta Usurbilgo AEK-k prest dute 2016-17 ikasturterako eskaintza.

Bada nobedaderik, ikasturte honi begira. "Berrikuntza da A1 eta A2 titulazioak sartu ditzutela", adierazi du Jokin Nazabal Hernaniko Udal Euskaltegiko kideak. Orain arte, B1, B2, C1 eta C2 titulazioa eskaintzen zuten euskaltegiek.

Berrikuntza garrantzitsua, asko baitira euskaltegira titulu bila doazenak. Lan munduak exijitzen dizkien hizkuntz eskakizunak betetze aldera, euskaltegira jotzen dutenek ikasle multzo garrantzitsua osatzen dute. "Askotaz titularen bila, lan munduratzeko erraztuko dielakoan. Horiek titulua eskuratzeko presa izaten dute", Nazabalen esanetan. Azken urteotan, 16-25 urte arteko zenbait ikasle ere gerturatu zaizkie. Euskaraz hasi eta hezitakoak. "Hezkuntzak emandako B1 badute, baina lanerako agian B2 behar dute", dio Jokinek. Badira horrez gain, familian euskaraz aritu ahal izateko euskaltegian matrikulatzen direnak ere.

HERRIKO BIZITZAN MURGILTEKO ZUBIA

Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte eskualdeko euskaltegiek. Malgutasun handia taldeak osatzera, kideen orduetegi eta maila aintzakotzat hartzen baitute. Ikasle berrien kasuan, duten maila ezagutu eta talde egokian kokatzeko, proba modukoa egiten zaie ikasturtea abiatu baino lehen. Hain zehatza izan gabe, etxetik ere aukera badago jakiteko zein euskara maila dugun buruntzaldea.eus webgunean.

Klaseetan, taldean elkarreragite handia izaten da, ondo pasatzea da helburua, ikasiz gozatzea. Eta pizgarri moduan, ikasgelako jardunaz gain, ekimen osagarriak ere antolatzen dituzte. "Anima dadila jendea, klaseak ahalik eta atseginenak izaten ahalegintzen gara. Horrez gain, beti izaten dira urtean zehar, tailerrak, gonbidatuak, euskaraz hitz egiteko



Eskura dituzten erraztasun guztiak eskaintzen dituzte Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiek.

Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak...", berri eman du Lasarte-Usurbilgo AEK-ko kide Olatz Urdanpilletak. Eskaintza honi gainera, datorren martxoan ospatuko den 20. Korrika erantsi behar. "Jendea prestatzen joan dadila", iragarri du Olatzek.

Hernaniko Udal Euskaltegian ere euskara erabiltzen laguntzeko "zubiak eskaintzen ditu; Mintzodromoa antolatzen dugu, astean behin dinamizatzaile batekin bi orduko solasaldiak kafetegian nahi

"Inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna ere erosoago sentiarazten du eta bera ere integratuz gero sentituko da".

JOKIN NAZABAL

duen ororentzat". Euskaltegitik kanpo. Ikasgelak trebatzeko guneak bai baitira, baina euskaltegietan eginiko lana be-

zain garrantzitsua edo garrantzitsugoa da AEK-tik nabarmentzen dutenez, euskara "kalean erabiltzea. Maiz errepikatzen diegu ikasleei, euskaltegitik kanpo egin dezatela ahal dutena; ondokoa euskalduna izan eta euskaraz agurtzen jakinez gero agurtzea; eroketa txiki bat euskaraz egin badezake, egitea; euskarazko musika eta telebista entzutea... Euskara nork bere zaletasunekin lotzea". Hartara motibagarriagoa zaie bati baino gehiagori euskara ikasi eta erabiltzen hasteko pausoa ematea.

Urrats hori ematea ez baita sarritan erraza izaten. "Hanka sartzeko beldurra izaten da, gaizki ulertuko ote nauten", Urdanpilletaren esanetan. Baina arestian aipaturiko saiakera txiki-handiak egiten hasi ostean, "oso motibatuak egoten dira eta oro har, behin pauso hori eman duenak ez du uzten. Kosta egiten baita". Batzuk ingurune hurbilenean ahotan hartzen hasten dira euskara. "Zenbaitek familian ematen dute. Hona datozen askok bikotea edo familia euskaldunak dituzte, edo seme-alabak euskaraz hezi nahi dituzte. Beste batzuek ezagunekin zailagoa

OLATZ URDANPILLETA:

"Euskarak, asko ematen du"

Euskara giro atsegin eta erakarriarri ikasteko aukera dago Buruntzaldean, eta merke asko gainera, lekuan lekuko udalak eskaintzen dituen diru-laguntzei esker. Ehuneko kopuru altuan finantza ditzakete ikasleek, euskara ikasteak eragiten dizkien gastuak.

Honenbestez, gonbita luzatua digute. "Pausoa eman dezatela, zalantza badaude, zenbat eta lehenago hobea", adierazi digute Hernaniko Udal Euskaltegitik. "Etor daitezela lasai. Euskarak, hizkuntzaz gain, asko ematen du. Denbora pixka bat eskaini beharko diote, baina trukean jasoko dutena asko da. Animatu!", luzatu digu gonbita AEK-tik Olatzek. Zuen esku, matrikulazio epea zabalik duzue.

suertatu eta nahiago izaten dute dendetan edo beste eremu batean hasi", Jokinen hitzetan.

HARREMANAK ERRAZTU

Aldaketok askoren bizimodu pertsonalean eragiten dute. "Ezagutu ditugu ikasle batzuk, koadrila ere aldatu dutenak", Olatzek aipatu duenez. Jokinen esanetan, "Hernani bezalako herri batean bizita, inguruan euskaldun piloa izanda, haiekin harremanetan jartzeko euskara jakiteak plus bat eman eta harremana errazten du. Euskalduna ere erosoago sentiarazten du eta bera ere integratuz gero sentituko da".

OHARRA URNIETA

2017-18 ikasturtera begira Urnietako AEK-k bertan lokala jartzeko asmoa du.

ANDOAIN

Andoaingo AEK-k lokalez aldatzeko asmoa du udaberrira begira; lehen Gurutze Gorria zegoen lokalera: Plazaola kalea, 2. zenbakira.

IZENA EMATEKO GARAIA

ESKUALDEKO UDAL EUSKALTEGIAK

HERNANIKOAN:

- **Matrikulazioa:** irailaren 23ra arte.
- **Ikasturte hasiera:** irailak 26.

LASARTE-ORIAKOAN:

- **Matrikulazioa:** irailaren 16ra arte.
- **Ikasturte hasiera:** irailak 19.

Eskaintza: maila guztietako ikastaroak (C2 titulaziorako prestakun-

tza izan ezik); 10, 6 edo 5 orduko klase asteak, Mintzodromoa, mintzapraktikarako saioak...

ESKUALDEKO AEK

- **Matrikulazioa:** irailaren 30era arte.
- **Ikasturte hasiera:** urriaren 3a.
- **Eskaintza:** euskara ikasteko aukera maila guztietan, Mintzalagun edo Solaskide egitasmoak, ikastaro zehatzak guraso edo merkatariarentzat, urtean zehar tailer edo ekimen bereziak.

Diruz lagunduko zaitu Udalak!

Usurbil
%100



Andoain
%85



Lasarte-Oria
%85



Urnieta
%50-%80



Hernani
%70-%90



Astigarraga
%75



**Eus
ka
ra
ikasi**
Buruntzaldean!

Jo gertuen duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoingo AEK
Extremadura 5 Behea
andoain@aeek.eus
943 591 704

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
eta Nabarra Oñatz 3
607610687

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltea
Geltoki kalea 17 Behea
943 372 863
lasarte@aeek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltea

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltea@lasarte-oria.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801
607592864
Zilegi eskola: 663043314

**Hernaniko Udal
Euskaltea**
Karobleta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.net
943 331 896

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltea
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@aeek.eus



buruntzaldea.eus

Sanmielak 2016 URNIETA

Urriak 2

X. Inistor jaia

Jakutegi plazan

12:30 X. Maldan-gorako Inistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bertsolariak.

Uxue Alberdi (Getaria), Miren Amuriza (Berriz), Unai Muñoa (Lasarte-Oria) eta Ander Lizarralde (Oiartzun). Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 "Urnietar Prestu" 2016 izendapena. Jokin Lizeaga korrikalaria izango da omendua.

19:00 VIII. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

Helduentzako menua (25 euro)

- Errusiar entsaladilla.
- Itsas-kabra.
- Karrillerak.
- Hojaldrea.
- Kafea.
- Belar txupittoa, whisky edo patxarana.

Haurrentzako menua (16 euro)

- Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin.
- Eskalopea txip patatekin.
- Sandwitx izozkia.

Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da. Azken eguna: Irailaren 28a.

Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:

URNIETAN

- KANTOI taberna (San Juan plazan).
- GURIA taberna (Idiazabal kalea).
- BIKAIN kafetegia (San Juan plaza).





KIROL ALBISTEAK

Aitor Iburguren kategoriko atezaina

Aitor Iburguren eskubaloiko atezaina da, estatuko bigarren mailara igotzea lortu duen Tolosa eskubaloitaldekoa. Aitortzen du ez zutela espero igotzea, baina

behin horretara iritsita, gogor saiatuko direla kategoriari eusteko. Partida ugari hartzen ditu eta oso gustura dabil Tolosako taldean.

Xehetasun batzuk emango al zenizkiguke noraino iritsi zareten jabe gaitzen?

Liga ezberdinetan banatutako 84 taldek osatzen dute hirugarren maila, eta hortxe genbiltzan joan den denboraldian. Gu lehenak geratu ginen euskaldunok osatzen genuen ligan, eta igoera fasean emaitza onak eskuratu eta gero, bigarngo mailarako txartela lortu genuen. Ohorezko zilar maila honetan bi talde euskaldun gaude, Tolosa eta Zarautz. Eta geure gaintik, goren mailan (Asobal), Bidasoa eta Anaitasuna daude. Nahiko meteorikoa izan da Tolosa taldearen ibilbidea egia esanda, orain hiru urte Leitzarango helduen taldearen parean baitzegoen.

Soldatarik-edo ba al daukazue maila horretan?

Erabat amateurak gara eta ez dugu pezeta bat ere jasotzen. Futbolarekin hasten gara konparatzen nahi gabe, baina hori ez da errealia. Gutako bakoitzak geure bizibidea daukagu, eta ez dugu amestu ere egiten eskubaloitik bizi ahal izatea noizbait. Neu irakaslea naiz (La Salle-Berrozpen), eta oraingoz bateragarria egiten ari zait lanbidea eskubaloiarekin.

Kategoriaz igota, zertan sumatuko duzue aldaketa?

Hasteko, inoiz ez bezalako talde gogorren aurka jokatu beharko dugu, eta exigentzia ere handiagoa izango da guretzat. Iaz Trapagaran izan zen irteerarik luzeena, joan etorri azkarrekoa. Aurten, ordea, Andaluziara, Kataluniara, Galizara... urruntzea egokitzen zaigu. Kasik, asteburu osoak horretara jarri beharko gara. Nolanahi ere, zuzendaritza malguki ari da jokatzen gurekin. Badaki



Aitor Iburguren Andoaingo Leizaran taldean hazitako atezaina, eskubaloiko elitean dabil gaur egun.

zein den gure egoera pertsonala, ez gara eskubaloitik bizi, eta ezin zaigula profesionalen dinamika ezarri.

Beti aipatu ohi da eskubaloia- ren ikusgarritasuna, baina oihartzun handiegirik eduki gabe jarraitzen du gizarte...

Egia da. Guk, txantxetan, esan ohi dugu futboleko ez bezala eskubaloian ziurtatuta daukagula gutxienez golen bat ospatzea. Egin kontu, igoera fasean, eskubaloia gogoko ez du-

ten lagun batzuk partiduak ikustera joan ziren Tolosara, eta bukaeran aitortu zidaten ez zutela espero halako tentsio bizi sentitzea. Probatzea bezelakorik ez dago, eskubaloia gustatzeko.

Tolosan, esaterako, geroz eta zaletasun handiagoa dago; 200-300 ikusle etorri izan zaizkigu iazko denboraldian. Igoera fasean, Tolosaldeko 28 Kanalak zuzenean eman zituen gure neurketak, eta egundoko audientzia eduki zuten; taber-

netan jende asko biltzen omen zen telebistaren aurrean.

Zein izan da zure ibilbidea eskubaloian?

Txiripaz hasi nintzen eskubaloian. Txikitik, futboleko entrenatzaileak agudo ikusi zuen trakets samarra nintzela, eta atezain jarri ninduen, han egin nezakeelako enbarazurik gutxiena. Gero futbola utzi, eta eskubaloira pasa nintzen; Leizarango harrobian hazitakoa naiz, bertan kategoriaz guztietan jokatutakoa naiz. Arrate taldetik ere pasa nintzen, Tolosak fitxatu aurreko urteetan.

Nola ikusten duzu Leizaranen lana Andoainen?

Ez dira pertsona ugari taldea aurrera eramaten dutenak, baina egundoko lana egiten dute eskubaloia herrian sustatzeko. Giro polita egoten da taldean, eta benetan eskertzekoa da jokatzen zaizkien gazte guztiei eskubaloia praktikatzeko aukera ematen dietelako.



Mendi lasterketa Leizaran bailaran

Irailak 11, igandea

42 kilometroko lasterketa Lekunberrin abiatu eta Andoainen amaituko da. 26 kilometroko lasterketa, berriz, Leitzan hasi eta Andoainen amaituko da.

07:30 Bus irteera Andoain
09:00 Lasterketa Lekunberri
12:30 Sariketa Andoain
15:00 Itxiera Andoain

Larramendi txapelketa, finala

Irailak 10, larunbata

Euskalduna futbol taldeak denboraldi atariko modura antolatzen duen txapelketa.

16:30 3-4. postuak.
18:30 Finala.
Ubitarte, Andoain.

Preferente mailako liga hastear da

Irailak 17-18

Urnieta eta Euskaduna taldeek liga etxetik kanpo hasiko dute. Ligan, eskualdeko Hernani edota Astigarraga izango dituzte aurkari.

1. jardunaldia:
Urnieta-Mariño.
Trintxerpe-Euskalduna.

Urnietako senior mailako eskubaloit taldea

Irailak 17, larunbata

Urriaren emango diote hasiera denboraldiari. Lehenago, etxekoan aurrean, egingo dute aurkezpen ofiziala zilarrezko ligako Donibane eta Uharteren aurka.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 8TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Ikastaroak

- Andoain**
- Pintura eta marrazketa, arte aplikatuak eta egur taila. Irailak 13-15: Iazko ikasleak. Irailak 19-23: Lehen aldiz matrikulatuko direnentzat. Informazio gehiago: 943 30 35 40.
 - Zuen elkartearen eskutik: yoga, pilates, tai chi, maki-lajea, sendabelarrak, arropa konpontzeko ikastaroak, josten ikasteko ikastaroa, eskulanak, musika... Irailak 19-25: Matrikula egiteko epea. Informazio gehiago: 606 929 697.

Urnietan, Sarobe

- Urnietako antzerki tailerra. Irailak 12-30: Matrikulazio epea. Ordutegia: Ostiralero, 19:00-21:00. Larunbat goizean, hilerorik.
- Yoga, pilates, funky, gimnasia hipopresioa, scretchinga, biodantza,... Urnietarrei zuzenduta badaude ere, inguruko herri-tarrek ere gain kostu bat ordainduta ikastaroetan izena eman dezakete. Irailaren 16ra bitarte: Matrikulazio epea. Ikasturtearen hasiera: Urriak 3, astelehena.

Igerilekua

- Urnietan**
- Ordutegia: 10:00-20:30. Irailaren 11 bitarte zabalik.

Bozak

- Eskualdea**
- Lehendakaria aukeratzeko hauteskundeak EAEn. Irailak 25, igandea.

Kantujira

- Urnietan**
- Kalez kale Egape ikastolaren 50. urteurrenaren baitan. Irailak 17, larunbata. 12:00.

Ospakizuna

- Urnietan**
- Iñistor jaiak, euskaltzaleen ospakizuna. Omendua, Jokin Lizeaga. Herri bazkari-rako txartelak laster salgai. Urriak 2, igandea.

Elkartasuna

- Usurbil**
- Bizipozaren jaiak. Gaixotasun arraroen elkarrekin. Irailak 25, igandea.

Zinema

- Andoain**
- Gernika. Irailak 10, 19:30, 22:00. Irailak 11, 19:30. Irailak 12, 19:30, 22:00.

Antzerkia

- Urnietan,**
- Gabon Txirrita emanaldia. Donostiako zein Urnietako emanaldietako sarrerak agortuta. 22:00 Kiroldedia. Irailak 23, ostirala.

Ikuskizuna

- Urnietan, Kiroldedia**
- 400 istorio musika eta dantza ikuskizuna, Urnietaren historian oinarrituriko ikuskizuna. Sarrerak salgai: Sarobe. 20:00 Kiroldedia. Irailak 24, larunbata.

Bertsoak

- Urnietan, Oianume**
- Miela batzordeak antolatuta, bertso musikatutak Oskar Estanga eta Oihana Iguaranen eskutik. Sarrerak salgai: 25€. Kantoi eta Xauxar tabernak. 21:30 Oianume. Irailak 24, larunbata.

Farmaziak

- Eskualdea**
- Andoain: Zatarain. Elizondo, 6. Urnietan: Tena Martin. Nagusia, 16. Astigarraga.
 - Gauez: Urrutia, Hernani. Etxeberrri, 1. Florida. Irailak 10, 11.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Zorionak Amane baserriko **Rikardo Etxeberria** eta **Nati Altunari**, irailaren 8an izan den beraien ezkontzaren 60. urtemugan. Ondo ospatu dezatela beraien seme-alaba eta bilobekin batera.

ANDOAIN

ZORIONAK



Handitzen handitzen... Jadanik zazpi urte gure **Marene!!!** Zorionak polita!!!

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

Erraza da, eta dohainik.

Emailak: diseinua@aiurri.eus

Webgunea: aiurri.eus

619 163 537



Elkarbizi taldearen ikastaroa irailaren 10ean Urigainen

Datorren irailaren 10ean, Elkarbizi taldeak antolatutako programaren zortzigarren ikastaroa egingo da, goizeko 11:00tatik aurrera, Urigaingo areto nagusian.

'Agirre lehendakaria. Guztion arteko bat-egitea eta pake soziala, gerren ondoko bizikidetzaren eraikitze (1936-1945) izango da ekitaldi berriaren jorratuko duten gaia. Ikastaroaren gidaria Joxan Rodriguez Ranz historialari andoaindarra izango da. Deustuko Unibertsitateak Donostian duen kanpusaren errektore-ordea izateaz gain, Agirre lehendakariaren biografiaren koegilea.

Agirreraren ideia eta jokabideak egungo bizikidetzaren berreraikitze

zenbateraino liratekeen iradokigarriak aztertuko dute, "XX. mendeko gerrek utzi zuten triskantzaren aurrean, euskal erakundeek zabaldu zuten mezu humanista aztertzea da ikastaroaren helburua. Agirre lehendakariaren goraiipamen ugari egiten da oraingo euskal politikan. Alderdi guztiek egin ohi dute une batean zein bestean. Galdera litzateke ea Agirreraren ideia eta jokabideak zenbateraino diren iradokigarriak gaur egungo bizikidetzaren berreraikitze-lanetarako".

Ikastaroaren izaeragatik, parte hartzeko plazak mugatuak direnez, izena emateko epea irailaren 8an amaituko da. ganboiturri@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

Aiurriko posta elektronikoak

Aldaketa

Webguneak eta posta elektroniko ezberdinek .eus domeinua dute, beraz, email bidetzeko komunikazioa lantzeko garaian kontuan hartu beharrekoa da.

Emailak:

Andoain: andoain@aiurri.eus
Urnietan: urnieta@aiurri.eus
Zorion-agurrak: diseinua@aiurri.eus

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula irailaren 23a arte irekita

Denbora gutxi al daukazu euskaltegiara etortzeko? Lasai, 5 orduko modulua daukagu, astean bitan bakarrik etortzeko!

Baita bestelakoak ere: astean 6 eta 10 ordu, autoikaskuntza.

Etorri edo deitu eta galdetu!

Diru-laguntzak daukazu euskara ikasteko: galdetu zure udalean

Karobieta auzoa, 63 (ambulatorio zaharra) Tel.: 943 33 18 96
euskaltegi@hernani.eus Bulego ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30

Gurekin ahal duzu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA